



Aldez aurreko kontsulta publikoa, Nafarroako Foru Komunitatean hezkuntza-sistemako lanbide-heziketa dualaren zenbait alderdi arautzen dituen Foru Aginduari buruzkoa.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikulua ezartzen duenez, lege baten edo erregelamendu baten proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren web atariaren bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten datorren arauaren eraginpean gerta litezkeen subjektu eta ordezkariak handieneko erakundeek, puntu hauei buruz:

- a) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.
- b) Araua onestea beharrezkoa eta egokia den.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Aukeran dauden beste konponbide batzuk (arauemaileak eta arauemaile ez direnak).

Dokumentu honen helburua da lehen aipatutako araudiak planteatzen dituen gaiei erantzutea, eta Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza-sistemako lanbide-heziketa dualaren zenbait alderdi arautzen dituen Foru Agindua egin aurreko kontsultaren oinarri izatea, arauaren hartzaile izan daitezkeenek eta herritarrek, oro har, parte hartzeko eta ekarpenak egiteko aukera izan dezaten.

A) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.

Azaroaren 8ko 1529/2012 Errege Dekretuaren bidez, garatu zen prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratua, eta ezarri ziren lanbide heziketa dualaren oinarriak. Aipatutako errege-dekretuak antolatzen du nagusiki lan-eremuko prestakuntza duala, baina hezkuntza-esparruan ez da hain sakona prestakuntza-modalitate horren erregulazioa; beraz, prestakuntza-modalitate horren garapenak prozedurazko zalantzak sortzen ditu, eta horiek argitu egin behar dira.

B) Araua onestea beharrezkoa eta egokia ote den.

Prestakuntza duala da prestakuntza-ekintzen multzo bat, helburu duena ikasleek lanbide-kualifikazioa lortzea, horretarako enpresek eta lanbide-heziketako ikastetxeek txandaka partekatutako irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuak erabiliz.

Jende oro bat dator: beharrezkoa da lanbide-heziketa duala sustatzea, lanbide-heziketako ikasleen prestakuntza indartzeko, hartara, batetik, lan-aukera handiagoak izan ditzaten, eta, bestetik,



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua
Departamento de Educación
Hezkuntza Departamentua

Servicio de Cualificaciones Profesionales, Empresa y Empleo
Lanbide Kualifikazio, Enpresa eta Enplegurako Zerbitzua
San Domingo 8
31001 Iruña
Tel. 8248 42 89 85
scualiedu@navarra.es

erantzun hobe emateko ekoizpen- eta zerbitzu-sektoreetako enpresen beharrei, langile kualifikatuak behar baitituzte. Horregatik, beharrezkoa da arau-esparru argiagoa ezartzea.

C) Arauaren helburuak.

Arau honen helburua da, beraz, modalitate dualeko lanbide-heziketa garatzea Nafarroan hezkuntza-esparruan, gardentasun eta segurtasun juridiko handiagoa emanez prestakuntza-modalitate horretan esku hartzen duten alderdiei.

D) Egon litezkeen beste aukera batzuk (arauemaileak eta arauemaile ez direnak).

Ez da balizko bestelako konponbiderik aurreikusten.

Iruñean, 2020ko azaroaren 9an

Lanbide Kualifikazio, Enpresa eta Enplegurako Zerbitzuko zuzendaria



Fco. Javier Martínez Cía jn.